




ALDARTE “Centro de Atención a Gays, Lesbianas y
Transexuales”

aldarte@aldarte.org WWW.aldarte.org Tlfno. 944237296

Maiatzaren 17a :
Homofobia, lesbofobia eta
transfobiaren aurkako
nazioarteko eguna.

1990ko maiatzaren 17an, homosexualitatea buruko gaixotasunen zerrendatik kendu zuen Osasunaren Munduko Erakundearen (OME) Biltzar Nagusiak, eta horregatik eskatzen dugu egun hori “Homofobia, lesbofobia eta transfobiaren aurka borrokatzeko nazioarteko eguna” izenda dadila, hori izango baitugu sexu orientazioagatiko diskriminazioa sustatu, justifikatu nahiz babesten duten jendaurreko jokabideak agerian jartzeko modua, bai eta Europar Batasuneko lesbiana, gay eta transexualen berdintasun juridiko eta sozialeranzko bidean aurrera egitekoa ere.

Hainbat herrialdetako gay, lesbiana, transexual eta bisexualen elkarteek sustatutako kanpaina da, gizartea sentsibilizatzeko asmoz eginga, LGTB kolektiboarekiko diskriminazioa egon badela, modu askotara egon ere, eta gainera, egoera larria dela jabeazteko. Kanpainaren helburua, beraz, Nazio Batuetako Goi Mandatariak eta Giza Eskubideen Batzordeak maiatzaren 17a homofobia, lesbofobia eta transfobiaren aurkako munduko eguna izenda dezaten lortzea da.



TRANSEXUALITATEA EZ DA GAIKOTASUNA

TRANS DESPATOLOGIZAZIOAREN ALDE

TRANS ETA INTERSEX BORROKARAKO EGUNA

Urriaren 17a . larunbata

MANIFESTAZIOA

18.00etan

BILBOko

plaza biribilan

ELKARRETARATZEAK

17.00etan

DONOSTIAko

Bulebarrean

18.00etan

GASTEIZko

Andra Mari Zuriaren pl.



deialdia

TRANS DESPATOLOGIZAZIOAREN ALDEKO

TRANSEXUALITATEAK
GAIKOTASUNA IZATEN
JARRAITZEN DU

UGARIAK DIRA
TRANSEXUALI
TATEA BURUKO
GAIKOTASUNTZAT
EZ JOTZEAREN
ALDEKO
MOBILIZAZIOAK





Soy
Homosexual
y qué ???


silencio
exige tus
marlos
res

DEFINIZIOA: HOMOFOBIA-LESBOFOBIA-TRANSFOBIA

Homosexual, lesbiana eta transexualenganako ezinikusi obsesiboa.

- gorroto modu zabalduenetako bat da homofobia, lesbofobia eta transfobia, eta munduko herrialde gehienetako legeetan azaltzen da, gay, lesbiana eta transexualak diskriminatzen dituzten arauen bitartez.
- munduko 85 herrialdek kriminalizatzen dituzte homosexualitatea zein lesbianismoa, eta sexu berekoen arteko sexu egintzak kondenatzen dituzte, isun ekonomikoak, zigor fisikoak, kartzela zigorrak bai eta heriotza zigorra ere ezarriz.

LGBTB KOLEKTIBOAREN GIZA ESKUBIDEEN EGOERA



Persecution – death penalty or imprisonment for same-sex acts:

- death penalty
- imprisonment from 11 years to a life-long sentence
- imprisonment from 1 month to 10 years
- imprisonment, no precise indication of the length

Recognition – countries which recognise same-sex unions and introduced registration systems*

- marriage
- equal (almost equal) substitute to marriage
- clearly inferior substitute to marriage

LGTB KOLEKTIBOAREN GIZA ESKUBIDEEN EGOERA



IPAR AMERIKAN

- Kanada: Ezkontza
- AEB: Auzitegi Gorenak legez kanpo utzi zituen 2003an sexu harremanak kondenatzen zituzten hainbat lege. Zenbait estatutan, ezkontza. Legegintzaren alorrean, borroka indartsua.
- Mexiko: Ezkontza, Barruti Federalean. Diskriminazioa debekatzen duten legeak. Gizarte biolentzia handia.

LGTB KOLEKTIBOAREN GIZA ESKUBIDEEN EGOERA



HEGO AMERIKAN:

- Uruguayk eta Argentinako zenbait estatuk ezkontza onartzen dute. Kolonbiak ez du iritsi benetako berdintasuna.
- Zenbait herrialdek diskriminazioaren aurkako legeak dituzte.
- Herrialde batzuetan LGTBen aurkako indarkeria gogorra da (Brasilen, Kolonbian talde paramilitarrak).
- “Legeztaturiko” diskriminazioa ere badago, esaterako, Txilen.


LGTB KOLEKTIBOAREN GIZA ESKUBIDEEN EGOERA



OZEANIA:

- Australia. Babesa eta izatezko bikoteen legea.
- Beste irla batzuetan, axolagabetasun eta babesgabetasunetik hasi eta zigortzeraino.

LGTB KOLEKTIBOAREN GIZA ESKUBIDEEN EGOERA



ASIA ETA EKIALDE ERTAINA:

- Erdialdean eta ekialdean ez dute onartzen, eta babesgabetasuna da nagusi.
- Hiru herrialdek heriotza zigorra dute: Iran (berriki exekuzioak izan direlako susmoa), Saudi Arabia eta Yemen.
- Hamaika urteko kartzelaratzetik bizi osorako zigorrera: India, Pakistan, Malaysia, Brunei...
- Urte batetik 10 urtera bitarteko kartzelaratzeari: Myanmar, Uzbekistan...
- Afganistan: ez dago jakiterik zein den benetako egoera.

LGTB KOLEKTIBOAREN GIZA ESKUBIDEEN EGOERA



AFRIKA:

- Heriotza zigorra: Mauritania, Sudan, Somalia eta Nigeriako iparraldea. Uganda batu egingo zaie.
- Hamaika urteko kartzela – bizi osorako kartzela: Tanzania, Kenia, Zambia, Nigeriako hegoaldea....
- Urte batetik 10 urtera bitarteko kartzelaratzeta: Mediterraneoko herrialde guztiak, Etiopia, Kamerun, Ghana....
- Ez dago jakiterik zein den benetako errealitatea: Angola, Mozambique
- Hegoafrika: ezkontza eta berdintasuna, paperean bederen.

LGTB KOLEKTIBOAREN GIZA ESKUBIDEEN EGOERA



EUROPA:

- Europako Batasunera biltzeko nahitaezkoa da diskriminaziorik ez egitea.
- Arazo larriak, ekialdeko herrialdeetan (hezkuntzako legeak egiteko saiakerak, manifestaldiak debekatzea,...).
- Ezkontza: Norvegia, Suedia, Belgika, Holanda eta Espainia.
- Ezkontzaren parekoa: Erresuma Batua, Alemania, Suitza eta Finlandia.
- Gutxieneoak jasotzen dituzten legeak: Frantzia, Errepublika Txekiarra, Austria...
- Vatikanoak etengabe egiten ditu homosexualitatearen aurkako adierazpenak.



YOGYAKARTAREN PRINTZIOAK (2006 – 2007)

- Zer dira? Sexu orientazioari eta genero identitateari buruzko giza eskubideen nazioarteko legeak ezartzeko legezko printzipioak.
- 29 adituk taiutuak.
- NBEko Giza Eskubideen Genevako Kontseiluan aurkeztuak.
- Nazioarteko Legelarien Batzordeak berretsiak.

YOGYAKARTAREN PRINTZIOAK (2006 – 2007)

29 PRINTZIOEK HURRENGOOK DITUZTE ARDATZ:

- Giza eskubideez gozatzea eta diskriminaziorik ez jasatea.
- Giza segurtasuna eta norberarena.
- Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak.
- Adierazpen eskubidea, iritzia ematekoa eta elkartzekoa.
- Mugitzeko eskubidea eta asilo eskubidea.
- Kultur eta famili bizitzan partehartzeko eskubidea.
- Giza Eskubideen Defendatzaileen eskubidea.
- Lege errekursoetarako eta kalte-ordainketarako eskubidea eta zigorerantzukizuna.

Gomendioak ezarri dira printzipio bakoitzean, estatuek bete ditzaten.

LGTB TALDEARENTZAKO ESKUBIDEEN IKUSTARAZTEA TRANSIZIOTIK GAUR EGUNERAINO



- 1978** Konstituzio berriak berdintasun formala dakar, izan ere, 14. artikuluan ez dela sexua, arraza, erlijioa edo beste “edozein egoera sozialengatiko” diskriminaziorik onartuko aipatzen du.
- 1979** Arriskugarritasun Sozialaren Legea aldatzen da, “homosexualitate ekintzen” aipamena kentzeko. Oraindik ere "eskandalu publikoa" badago, eta gay, lesbiana eta trans pertsonak jazartzeko erabiltzen da.
- 1983** Sexu-berresleipenaren operazioa despenalizatzen da.
- 1985** Homosexualitatea delitu bezala Zigor Kode Militarretik kentzen da.
- 1988** “Eskandalu Publikoa” Zigor Kodetik kentzen da.
- 1994** Gasteizen izatezko bikoteen lehenengo erregistroa sortzen da. Bikote heterosexual eta homosexualak, harreman afektiboa egiaztatzen duen kontratu zibila badagoela erregistratu dezakete. Jarraian, eta aurrerantzeko urteetan, izatezko bikoteen udal-erregistroak sortzen hasten dira Espainiako Estatuan.
- 1994** Hiri Errentamenduen Legeari esker, HEL, sexu-joera kontuan hartu gabe, izatezko ikoteak lehenengo aldiz onartzen dira.
- 1995** Zigor Kode berria sortzen da, “demokraziako Kodea” deitutakoa, honek, homofobia behin-betiko zigortzen du, eta politika publikoetatik edozein elementu diskriminatzaile kentzen du.

Estatu espainiarreko eta Euskal Herriko gay, lesbiana eta transexualen eskubidei buruzko gertaera garrantzitsuenak aipatu dira



- 1995** Indarkeriazko eta askatasun sexualaren aurkako delituen biktimentzako Laguntza eta Diru-laguntzen Legeak izatezko bikoteak berriro ere onartu egiten ditu, beren sexu-joera kontuan hartu gabe.
- 1998** Parlamentu andaluziarrak Osasun-zerbitzu andaluziarrak eskaintzen duen zerbitzuen gutunean tratamendu transexuala barne hartzea onesten du. 1999an, Genero Identitatearen Arazoen Unitatea deitutako lehenengo zerbitzu espezializatua eta diziplina anitzekoa sortu zen Malagako Carlos Haya ospitalean.
- 2000** Nafarroan izatezko bikoteen lege autonomikoa onesten da. Lege honen barnean adopzioa dago (Uztailaren 3ko Bikote Egonkorren Berdintasun juridikorako 6/2000 Lege Forala)
- 2003** Euskadin izatezko bikoteen lege autonomikoa onesten da. Lege honen barnean adopzioa dago (Martxoaren 20ko Izatezko Bikoteen 5/2003 Legea).
- 2005** Diputatuen Kongresuak 13/2005 legea onesten du, eta honen bidez, ezkontzeko eskubidearen gaian Kode Zibila aldatzen da, eta honi esker, bi emakume edo bi gizonek beren harremana ezkontzaren bidez arautu dezakete. Beste gauza batzuen artean bikotekidearen seme-alabak adoptatzeko eskubidea barne hartzen du.
- 2007** Diputatuen Kongresuak Genero Identitatearen Legea onesten du. Lege honi esker, pertsona transexualek izena aldatu dezakete erregistro zibilean, sexu-organoak operatu beharrik gabe.

**Estatu
espainiarreko eta
Euskal Herriko
gay, lesbiana eta
transexualen
eskubidei
buruzko gertaera
garrantzitsuenak
aipatu dira**



LESBOFOBIA



STOP

TRANSFOBIA

HOMOFOBIA



ekainak 28 junio

lesbiana, gay eta transexualen askapenaren nazioarteko eguna

dia internacional de la Diversidad Sexual lesbiana, gay y transsexual

gauza guztien gainetik
harro

ante todo

orgullosas

Aldarte | Hegoak | MDM | Bizigay | Ehgam | Euskal hartzak